

noaua



Ekainaren 8an

Agiñarrok Uharte-Arakilen
Usurbildarrok
Zubietarrok dugu zita!



"Nazoa gara, erabakitzeko eskubidea dugu, herritarren garaia da"
"Somos una nación, tenemos derecho a decidir, es el momento de la ciudadanía"

Iritsi da eguna





ARDI-BELTZ BERRIA

Sartu, probatu eta itzuli

☞ *B. G. Erria*

- ☞ Taldeetarako menua
- ☞ Plater konbinatuak
- ☞ Hanburgesak
- ☞ Egitaratekoak
- ☞ Entsaladak
- ☞ Urtebetetze jaiak

ERAMATEKO ERE

Puntapax 12 Bajo - Usurbil | @ardibeltzpub@gmail.com | @ardi_beltz



FUNERARIA GONZALEZ

EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

·EDOZEIN ASEGURU IZANDA (OCASO, SANTALUCIA...)
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
 (edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

ASEGURUAREKIN IZAPIDE GUZTIETAZ
ARDURATZEN GARA ZUZENEAN,
 (MOMENTU LATZ HAUETAN ASEGURUAREN POLIZA ZENBAKIA EDO ERREZIBOA EDO HORRELAKORIK EZ DUGU BEHAR, ASEGURUAREKIN ZUZENEAN IZAPIDEAK EGITEN DITUGU)

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK
 ·Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo beilatokia DOAN (gure eskutik)

info@funerariagonzalez.es | www.funerariagonzalez.es



OGI BERRI

ARTISAU OKINAK

ORDUTEGI BERRIA:
 egunero 06:00tik 21:00ra

asteburutan ere
 gaueko 21:00ak arte!

PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)



Marije

Arropa denda

94336106

facebook.com/marijearropadenda

Albiste iruditan

Nazioarteko adituak bisitan izan dira Lanbide Eskolan

Lanbide Heziketako gune desberdinen arteko nazioarteko topaketa ospatu berri da. Topaketon baitan, bisita gidatua antolatu zuten joan den maiatzaren 28an, Zubietara. Iruditan, nazioarteko Lanbide Heziketa zentro ezberdinetako ordezkariak, Lanbide Eskolako egoitzan ospaturiko aurkezpen ekitaldian. Gero, instalakuntzak ezagutzeko tartea hartu zuten.

Aurrematrikulazioa ixtear

2014-15 ikasturterako aurrematrikulatzeko azken eguna, ostiral honetan, ekainaren 6an. Orduetgia: astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Ostiraletan, 9:00-14:00 artean. Aurkeztu beharreko dokumentazioa: NAN fotokopia bat, egindako ikasketen ziurtagiri akademikoa (originala eta kopia); bi argazki, izen abizenekin atzealdean; eta kontu korrante zenbakia. Informazio gehiago: 943 36 46 00 edo lhu-surbil.com



Nazioarteko topaketa egin berri da Lanbide Heziketan.

Laburrean

Antzerki Txiki Taldekoen ikasturte amaiera

Ekainaren 14 eta 21ean, bi larunbatez jarraian, ikasturtea agurtzeko jendaurreko emanaldi bana eskainiko dute Antzerki Txiki Taldeko partaideek. Bi saioak, eguerdiko 12:00etatik aurrera Sutegiko auditorioan.

Ekainaren 12an, Udajolaseko guraso bilera

Ekainaren 12an, 17:00etan Potxoenean. Bertan emango da, uztailaren 1etik 30era 4-12 urte arteko haurrei zuzenduta, Udalak eta NOAUA!k antolatu duen aisialdiko ekimenaren inguruko nondik norako guztien berri.

Udako inausketa ikastaroa Potxoenean

Aitor Etxeandiak zuzenduko du ikastaroa, ekainaren 14an larunbata, 9:00etatik aurrera Potxoenean. Izen-ematea Alkartasuna Kooperatiban: 943 361 114 telefono zenbakian edo emailaz: alkartasuna@usurbil.com

noaUA

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkarte@noaUA.com /// www.noaUA.com

Jendaurreko orduetgia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaUA.com.

Diseinu berria: Erroitiz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaUA.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainar

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

Ekonomiaren legearen tolarepean

Txundituta utzi nau Iñigo Aranbarriren *Apirila* (Susa) nobelak. Kontaketa berean, gaur egungo krisi ekonomikoa eta 1766an Azkoitian zein Azeitian piztu zen matxinaden garaia uztartu ditu. Zer eta nola kontatzen duen. Denak harritu nau. Eta prentsara jo dut, informazio gehiagoren bila. Idazlearen hitzok topatu ditut Berriaren heme-rotekan: "Argi nuen zer bi istorio kontatu nahi nituen, baina era berean bi istorioak bat izatea nahi nuen. Azken batean, antz handikoak dira nobelan ageri diren bi garaietan gertatzen direnak. Orduan gertatu zena eta gaur egun gertatzen ari dena istorio bera da, neurri handi batean. Sistema ekonomikoaren aldaketa bat dago bi kasuetan. XVIII. mendeko matxina-

den garaian burgesiak erabaki zuen gariarekin eta artoarekin negoziatu eta garestiago saltzea, Frantziako bezeroak gehiago ordaintzeko prest zeudelako. Gaur egun antzeko zerbait gertatzen da deslokalizazioa deitzen den horretan: enpresariak erabakitzen dute lana auzokoari eman beharrean beste herrialde urrun batean merkeago egingo dionari ematea. Liberalismo basati hori ari zen nagusitzen orduan, eta gauza bera gertatzen ari da gaur egun. Eta tolarearen irudiak bietarako balio du: ekonomiaren legearen tolareak jende bera estutzen du orduan eta gaur".

Abdikazio, Munduko Futbol Txapelketa eta bestelako kontuekin entretenitzen garen bitartean, beste etxe bat gehiago hustutzen ari dira hor

nonbait. Datuak ez dira eskasak: "2013an bankuak 50.000 etxebizitza hartu zituen bere gain", hala dio sarean topatu duzun goiburuko batek. Eta albiste honetan ere, zer eta nola kontatua izan den. Denak utzi zaitu zur eta lur. Esandakoak bezain beste, arreta berbera piztu dizulako esateko moduak: "Durante el año 2013 la banca se adjudicó 50.000 viviendas de particulares". Bapatean, hori idatzi duen kazetaria edo dena delakoa ezagutzeko gogoia piztu zaizu. Desjabetze hitza ez erabiltzeko agindua jasoko zuen nonbait, eta pantaila aurrean irudikatu duzu, artikuluarri forma ematen, eta pronto izan duenean, goiburuko horrekin albisteak laburbiltzen.

Abdikazio, Munduko Futbol Txapelketa eta bestelako kontuekin entretenitzen garen bitartean, biseme-alaben ama irudikatu duzu, erosketetarako poltsa hutsa tolestean. Elikagaien Bankura jo beharko du gaur ere. 115.000 tona jangai banatu ziren iaz Espainian eta 1,4 milioi pertsona baliatu ziren laguntza horietaz.

Abdikazio, Munduko Futbol Txapelketa eta bestelako kontuekin entretenitzen garen bitartean, arrazoia emango diozu idazleari: "Ekonomiaren legearen tolareak jende bera estutzen du orduan eta gaur". Eta beste hau ere gehituko zenioke zuk: "1766ko matxinatu haien adorea falta da gaur". Whatsapp-a hasi zaizu hoska, abdikazioaren inguruko txisteekin entretenitu nahi zaituen lagun bat izango da ziurrenik.

Abdikazio, Munduko Futbol Txapelketa eta bestelako kontuekin entretenitzen garen bitartean, beste etxe bat gehiago hustutzen ari dira hor

Maialen Unanue | Luis Aranalde | Imanol Ubeda | Idoia Torregarai | Aritz Gorriti | Joxe Piñas | Nerea Zinkunegi

Liburutegiko Txokoa

Bi nobela, ipuin liburu bat eta DVD-liburu bat

'Azken afaria', nobela

Xabier Montoiaren *Azken afaria*: Gaztetako lau lagun arteko bazkariarekin hasten da liburua, baina horietako batensemearen atxilotetak, bakoitzaren ideologiaz gain, haien arteko harremana ere aldatuko du. Ekintza XX. mende hasiera eta 2012ko azken eguna (Azken afaria) bitartean garatzen da. Eleberria lau ataletan banatuta dago, atal bakoitzean idazleak erregistro ezberdina erabiltzen duelarik (elkarrizketa lehenengo eta azkenengoan, ekintza bigarrenean, eta bakarrikzeta hirugarrenean). Amaieran, maisutasun handiz eta hitz gutxitan, egileak buelta osoa emanango dio ordura arte kontatu eta sinestatarazi digunari.



'Erraiak', nobela

Danele Sarriugarten *Erraiak*: hogeita hamar urte inguruko emakumeak, etxera heldzerakoan, ohar bat aurkituko du: bere bikoteak abandonatzen duela irakurriko du bertan. Horrek abiaraziko du narra-tzailearen barne-bakarrikzeta (zenbaitetan obsesioa), bikote-harreman horren sorreraren eta gainbeheraren, zein aurretik izandako harremanen gaineko gogoeta.

Ezberdin izatearen eta normaltasunaren arteko borrokan, bere (eta gure) kontraesanak azaleratzen ditu egileak, estilo hotz eta gordinez, erraiak hustuz. XV. Igartza sariaren irabazle, nork esango idazlearen lehen eleberria denik...



'Sirena-hotsak', ipuin liburu bat

Xabier Etxaniz Rojoren *Sirena-hotsak*: Idazleak bizitako momentu ezberdinetatik abiatutako lau istorio biltzen ditu liburua: Matxupitxu, Akelarreak, American way of life eta liburuarri izena ematen dion Sirena-hotsak. Orainetik iraganera, eta alderantziz, denboran joan etorrian ibiliko gara ipuin hauetan; etorkizunari buruzko galderarik ere ez da faltako.

Laurak irakurtzen dira gustura, laurretan jakin baitu idazleak irakurleari hasieratik harrapatzen, bere estilo samur eta arina lagun.



DVD-liburu bat: '3L'

Anjel Lertxundi eta Antton Valverderen eskutik, *3L*: Lauaxeta, Lizardi, Lete: 2013ko irailaren 3an Donostiako Viktoria Eugenia antzokiko klubean egindako emanaldia jasotzen da ikusentzunezko honetan.

Bertan, Xabier Lete, Xabier Lizardi eta Lauaxeta poeten testuak abesten ditu Antton Valverdek bere pianoaren laguntzaz, abesti bakoitzaren aurretik, Anjel Lertxundik olerki bakoitzari sarrera dotore bat eskaintzen diolarik.

Ordu bete pasatxo poesiaz (ikusiz eta entzunez) gozatzeko.



Liburutegia non?: Irazu 14 kalean. Eta sarean: <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usbil/>

Twitter: @usurbil / Facebook: Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia / Noa! Komunitatea: Sutegi Udal Liburutegia / App: Liburutegiak

Usurbilen dauden zortzi tren pasabideak kentzeko eskaera egin du PSE-EEk

Martxoan, Usurbilgo udaletxean mozio bat aurkeztu zuen PSE-EE alderdiak. Beste udal ordezkarien babesa jaso zuen mozioak eta aho batez onartu zen tren pasabideak ezabatze eskaera. Gipuzkoako Batzar Nagusietan ere babestua izan da sozialisten proposamena. Baina konponbidearen giltza Eusko Jaurlaritzaren eskutan dago. PSE-EEk prentsaurreko bidez salatu duenez, Eusko Jaurlaritzak tren pasaguneak kentzeko diru partida murriztu egin du 2014an. Eta 300.000 mila euro bakarrik aurreikusi ditu Lakuak horrelako lanetarako. Hain zuzen, "diru hori Durangon erabiliko da, Zarabarra eta Alluitzen. Hori dela eta, ezinbestekoa egi-



Mikel Diez Gipuzkoako PSE-EEko garraio arduraduna eta Ricardo Crespo Usurbilgo zinegotzi sozialista, Potxoenean eskaini zuten prentsaurrekoan.

ten da Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoarekiko duen konpromisoa adieraztea eta Gipuzkoan egoera berdinean dauden 15 herriak ere kontuan izatea", PSE-EEko kideek astearte honetan Potxoenean egindako adierazpenak dira hauek.

Santueneko pasabidea, Zubietakoa, Aginagakoa... "5.000 biztanletik gorako herrien artean, Usurbil da pasabide gehien duen herria eta inbertsio batzuk egiteko ordua dela uste dugu", Ricardo Crespo zinegotzi sozialistaren esanetan.

Udalak ahobatez onarturiko mozioa

Usurbilgo PSE-EEk mozio hau aurkeztu zuen martxoan. Eta udal ordezkari denek aho batez onartu zuten. Honela dio mozioak:

1. Usurbilgo Udalak, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari dei egiten dio, herrian dauden 8 tren pasaguneak eta nasen arteko pasabidea ezabatze-ko. Gure herria Gipuzkoan dagoen tren pasagune gehien duen herria delako eta Euskal Autonomi Erkidegoan bigarrena izanik Euskal trenbide sarean.

2. Usurbilgo Udalak, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari, Euskal Trenbide Sareari (ETS) eta Eusko Legebiltzarrari akordio honen berri emango dio.

Norberak berea ordaintzeko eskaera

Haserre erantzun dute, Usurbil, Hernani, Astigarraga, Lezo, Pasaia eta Oiartzungo udalek, aurreko astean San Markoko lehendakari Denis Itxasok hedabideen aurrean eginitako adierazpenei. Agerraldi hartan, atez atekoa indarrean duten sei udal hauei hondakinen gaikako bilketa jarraia leporatzen zien Itxasok. Hitz hauen aurrean, birziklatze-tasa %70-80raino igotzea lortu duten sei udalok prentsa ohar bidez adierazi dutenez, "Denis Itxasoren helburu bakarra Atez Ateko Bilketa sistemaren kontra jotzea da eta bere helburu hori lortu nahi du, bilketa sistema hau egiten duten udalerriak ekonomikoki zigortuz".

Mankomunitatea 10 udalerririk osatzen dute. Sei udaletan (Usurbil, Hernani, Astigarraga,



Haserre dira Usurbil, Hernani, Astigarraga, Lezo, Pasaia eta Oiartzungo udal ordezkariak, Denis Itxaso San Marko Mankomunitateko lehendakariarekin.

Lezo, Pasaia eta Oiartzunen) atez atekoa dago indarrean, gainerako lau udalerrietan, Donostian, Lasarten, Urnietan eta Errenterian, indarrean segitzen duen edukiontzien sistema. Atez atekoa duten herriek, gainerako herrietako edukiontzien sistemak eragindako kostuen zati bat ordaindu izan dute

orain arte. Planto egitea erabaki duten arte: "urte batzuk igaro ditugu besteen edukiontzia ordaintzen eta ez gaude prest horrela jarraitzeko".

Martxoan amaieran auzitegitara jo zuten gai honengatik, San Markok 2014rako aurkezturiko aurrekontuei helegitea jarztera. Egoera hau zuzentzea es-

katzen dute, Mankomunitateak edukiontzien bilketa zerbitzua eskaintzen jarraitzeko lizitazio berri bat onartzeko prozesua abiatu duen honetan.

Zerbitzua laurentzat, faktura denok ordaindu behar

Mankomunitateak, Donostia, Lasarte, Errenteria eta Urnieta-ko hondakinak edukiontzia bidez jasotzen segitzeko lizitazioa berritzeko prozesua abiatu du. "Arazoa da lizitazio berri horrek soilik mankomunitateko lau herriei emango diola zerbitzu, baina faktura sei herri txikiei ere pasako zaiela. Sei herri, %70etik gorako birziklatze-tasekin, gure bilketa osoa ordaintzen dugunok eta beste lau herrien bilketa ez-horren-efizientea ordaintzera behartu nahi gaituztenak", salatu dute atez atekoa indarrean duten San Markoko udalek.

Udarregiko txikiak, artista handienak

Zientzialariak, azukre koxkorak, goilarak, naturari loturiko elementuak... Zientziaren inguruko festa handia ospatu zuten joan den Ikastola Egunean Haur Hezkuntzakoek, Oiarde Kiroldegian eskainitako emanaldian. Nabarmenezkoa da beste behin, mimo handiz prestatzen dutela hitzordu hau, ikasle, irakasle eta gurasoen artean. Egoki aukeratzen dute musika, ondo landu eszenografia eta mo-zorroak. Udarregiko txikiak, artista handiak direla erakutsi dute aurten ere. Jendetza erakarri zuen ikuskizunak. Kiroldegitik Udarregirainoko herri-ilara zegoen, HHkoen ikuskizunera gerturatzeko.

JOKOETAN ATERI

Ekainaren 1ekoa goiz euritsua izan arren, Ikastola Eguna abiatu zuten LH-ko ikasleen arteko jokoak bere horretan ospatu ziren. Kolore urdin, gorri eta berdeko taldeen arte-



Jende asko batu zen frontoian, Ikastolaren Eguneko berri bazkarian.

ko lehia bizia izan zen beste behin, egun batez txapelketak gune handian bihurturiko Udarregiko patioan. Puntuazio onena lortzeko dena eman zuten.

ERAKUSKETA

Txapelketak ikustera hurbildutako lagun eta senideen animuak jaso zituzten. Haietako asko, jokoetarako gerturatu ziren Udarregira, baita ikasleek urtean zehar eginiko eskulanean erakusketak bisita-

tzera. Ikastola Eguna, ikasturtean zehar bideraturiko lan-terekin erakusleho ederra izaten baita.

FRONTOIA, BETETA

Aita-ama talde batek prestatu eta zerbitzaturiko menu goxo askoa dastatzeko aukera izan zuten, ekainaren 1eko Ikastola Eguneko herri bazkarirako izena emandakoek. Frontoia bete zuten Udarregi Ikastolako ikasle eta gurasoek. Pilota-leku sarreran bestalde,

2015ean Usurbilen ospatuko den Kilometroak jaialdiko antolaketa lanetan laguntzeko izen emateko mahaia ere jarri zuten.

Gogoan izan, Udarregi Ikastolako idazkaritzan edota udarregi.com atarian sartu eta bertan dagoen izen emate orria beteta apuntatu litekeela baita. Udarregikoek goizean goiz hasitako ospakizunak, musika eta dantza giroan amaitu zituzten arratsalde partean.



Ikasleek urtean zehar egindako lanen erakusketak ere arreta berezia jaso zuten.



Ohi bezala, jendetza batu zen kiroldegian, ikasleen eta irakasleen ikuskizunetzat gozatzeko asmoz.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

BORDATXO

taberna

Pintxo Bereziak

943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Josue

Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Dantza Taldearen ibilbidea, argitalpen batean erretratatu

Usurbilgo historia zati garrantzitsu bat liburu batean bildua dago, jada herritar ororen eskuragarri; "Usurbil Dantzan. Usurbilgo Dantza-Taldearen historia 1975-2013". Hiru herritarrek, Maider Errasti Amianok, Axier Otegi Iribarrek eta Ion Markel Saez de Urabain Iparragirrek azken urtebete honetan maitzen joandako proiektua aurkeztu zuten joan den maiatzaren 30ean, txiki geratu zen Sutegiko erakustaretoan.

Abiapuntutik labetik atera arte, liburuaren elaborazio prozesuaren inguruko zehaztasunak eman zituzten egileek. Baita noski, irakurleek liburuan aurkituko dituzten zenbait zertzelada aurreratu ere. Dantza Taldearekin lotura izan duten herritarrekin lekukotza liburu bat da "Usurbil Dantzan", irakurterraza eta oso bisuala, bizipen eta une gogoangarri asko biltzen dituzten testu eta irudiez hornitua dagoena. Gertukoa egingo zaizue, herritarrek ageri baiti-



Aurreko astean aurkeztu zen liburuia Sutegin.

LIBURUAREN MAMIA

"1957ko Santixabeletako lehen ekitalditik gaur arteko Dantza Taldearen ibilbidea erretratatu geratu da"

ra argazkietan eta usurbildarren hitzak jaso baitituzte. 1957ko Santixabeletako lehen ekitalditik gaur arteko Dantza Taldearen ibilbidea erretratatu geratu da liburuan. Baina denboran atzerago ere egin, eta igaro den mendean zehar, dantza irakasleen, egiten ziren

dantzen edota ohorezko soka dantza mantentzeko egindako ahaleginaren berri ere jaso dute.

HERRITARREI ETA UDALARI, ESKER ONEZ

Lekukotzekin batera, irudiekin lanean aritu da Ion Markel Saez de Urabain. Argazki bilduma bi bideetatik osatu dute; Udalaren eta herritarren laguntzaz. "Altxorra duzue Usurbilen, udal fototekarekin. Usurbilgo etxeetan ere argazki asko daude eta horri esker osatu da liburuia", Ion Markelen esanetan.

Informazioa eta materiala biltzen egin duten ahalegina nabarmentzeko da. Dantza Taldeko kide Axier Otegi aurkezpen ekitaldian gogorarazten zuenez, "artxiboetan ia ez zegoen ezer idatzirik Usurbilgo dantzaren inguruan". Belaunaldi ezberdinetako herritarrek izan dira hein handi batean, liburu informazio iturri nagusiak. Liburu egiteko ideia berri, iaz estreinakoz ospatu zen Dantza Egunaren haritik dator. Dantzari heldu eta gazteak bildu zituen transmisioa irudikatu zuen kalejira hartatik. Hutsune nabarmen bat zegoen Usurbilgo historian, apenas zegoen ezer idatzia herriko dantza taldearen inguruan. Liburu bat egiteko proposamenarekin udaletxera joan ziren. Udalaren baiezkora jaso zuten segituan, Mertxe Aizpuru alkateak aurkezpenean adierazi zuenez. "Laguntza eskatzera etorri zirenean zalantzarik gabe baiezkora, babesa eman genien. Uste genuen merezi zuela ahalegina egiteak. Gustura eman genuen eskatutako laguntza", alkatearen esanetan.

"Jarraitu horrela, herria dantzan jartzen"

Altxor bat dugu esku artean alkatearen ustez, "herri honen historiaren zati bat berreskuratzen da". Eta iragan ostiralekoa, herri ondarea babesteko ekitaldi gisa definitu zuen. Egileak eskertu eta zoriondu zituen Mertxe Aizpuruak: "Liburu honen atzean izugarriko ahalegina dago eta nabari da ilusioa eta maitasuna jarri zaiola proiektuari". Usurbilen dantza indarberritzeko egin den ahalegina ere nabarmendu zuen alkateak eta bide horretatik jarraitzeko gonbita luzatu



Dantza saiorik ere egin zen liburuaren aurkezpen ekitaldian.

zuen, "jarraitu horrela herria dantzan jartzen".

Liburu egile eta Usurbilgo

Udaleko ordezkariekin batera, proiektua gauzatzen lagundu duten hainbat herritar ere ber-

taratu ziren Sutegira. Haietako batek baino gehiagok, Dantza Taldeko argazki gehiagorekin. Egileetako batek, Maider Errastik zioen moduan, liburu argitaratzeko egindako lana hemen ez da amaitzen, "etengabeko lana izango da. Bide bat da lan honekin jarraitzeko".

Sutegiko aurkezpen ekitaldia amaitu bezain laster hurbildu zen jendea Dantza Taldekoenagana, liburu erostera. Lizardin, Lauroken eta NOAUA!ko egoitzan duzue eskuragarri, 10 eurotan.

Aitzaga, ospakizun betean

Azken hamarkada hauetatik barrena bidaia moduko bat egitea proposatzen digute Aitzaga Elkarteak, asteburuan Sutegin ireki zuten erakusketan. Denetarik aldarrikapen eta mezuak biltzen dituzten kartel eta pegatina historikoak aurki ditzakegu. Baita hainbat hormetan ikusi ditugun kartelak ere. Bilduma osoa egunotan duzue ikusgai Sutegin. Egunero, larunbatera arte, 18:30-20:30 artean.

Afaritarako txartelak

Aitzaga Elkarteak ostegunetan beteko duen 20. urtemugaren harira antolatu du Sutegino erakusketa.

Maiatzak 31-ekainak 7

18:30-20:30 Erakusketak Aitzaga Elkartearen eta Sutegino erakustaretoan: Euskal Herriko 1.200 pegatina, kartel historikoak eta 20 urteotako hainbat pasari jasotzen dituzten argazkiak.

Ekainak 5, osteguna

19:00 Solasaldia: "Euskal bidea eta Via catalana", Sutegino auditorioan. Catalunyan eta Euskal Herrian erabakitze eskubidea lortzeko indartzen ari diren prozesuak hizpide izango dira. Hizlariak David Fernandez (CUP) eta Hasier Arraiz (Sortu).



Erakusketa zabaldu dute Sutegin.

Ekainak 6, ostirala

20:30etatik aurrera Aitzaga inguruan: ekitaldia eta dantza kolektiboa (entseguak ostegunetan izaten dira, Aitzagan, 19.30ean).

Ondoren, afaria. Sarrerak salgai Aitzagan, 20 eurotan (12 eurotan, langabe eta ikasleentzat).

Menua: Entsalada epela ahate atsegingarriekin onddo-saltsan, entrekota barazkitxoekin, flan-tarta, sagardoa, ardoa, ura. Kafea eta likoreak.

Afalostean, bideo emanaldia: Azken 20 urteotako pasarteak. Lekukotzak. Ondoren, berbena Ezten Giro erromeri taldearekin.

Antolatzailea: Aitzaga Elkartea.

25. Musika Eguna, asteburuan Urdiñarben

Mende laurdena bete duen ekimena ospatuko dute Zuberoako herrian, ekainaren 6, 7 eta 8an. Nafartarrak taldetik bertara joateko gonbita luzatzen dute: "Asteburu polita antolatu dute gure Zuberoako lagunek, Musikaren Egunaren 25. urteurrena dela eta. Hegoaldean ikusteko aukerarik izango ez ditugun talde andana izango da 500 biztanle dituen herrixka horretan. Esku zabalik hartuko gaituzte bertara hurbiltzen garenoi, urteroz bezala". Ostiralera erakusketa eta antzerki emanaldiak antolatu dituzte, larunbatean, dantza emanaldiak, eta Gazte Topaketak, eta igandean ekitaldi zentralak, Musika Egunean.

Ekainaren 14an, UEMA Eguna Tolosan

"Altzotik eta eltzetik, euskaraz gara" lemapean Tolosan ospatuko da Usurbilgo Udala kide duen UEMA-k antolaturiko jai eta aldarrikapen eguna, ekainaren 14an. Udalerri Euskaldunen Eguna izango da lehen aldiz, eta orain arte egin izan den UEMA Eguna ordezkatu du. Aldaketa honekin, udalerri euskaldunei eman nahi zaie protagonismo osoa.

Su Ta Gar, bizi asko Aginagan

"Bizirik gaude" diskoa aurkeztu zuten iragan maiatzaren 24an, Eliza zahar eraberrituan. Haiekin batera jo zuten Legez Kanpo taldekoek, baita lehen lana kaleratu berri duten Izeberg taldekoek ere.



Eliza Zaharrean aritu ziren.

Andoain partean, Usurbilgo erraldoiak



Usurbilgo erraldoi txikiak Andoain ibili dira, herritik kanpo egin duten lehen irtenaldia eginez.

Lizarrako gaitero txikiak jarri zituzten Usurbilgo erraldoi eta buruhandiak dantzan.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea **943 363 348 - 609 888 021**

ALKORTA
AUTOZERBITZUA

Baserriko haragia

•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak

Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42



berria

berritzen ari gara
guztion ekarpenarekin...

...eta zure laguntza saritu nahi dugu.

Parte hartu zozketan

Sariak:



Parte hartzeko, bidali:

- Zozketa + izen-abizenak

Telegram, Whatsapp edo SMS bidez

(0034) 687-48 97 84

- Eman izena webgunean: www.berria.info/zozketa

Babesleak



Batu Partidarak Babesleak Abenturaren Okeo (5/1999) Logo Organismo berberak, jatorriari nahi dugu zure datu pertsonalak BERBIA Taldearen (Euzkoako Komunikazio Taldea SA) fitxategian sartuko direla tasapean zertifikatu emateko. Informazioak baino legiar berri jatorriari ez berritu, zure esudatze sarrabe, zuzenbidea, erregistroa eta markatutako esklusibitate erabiltzea. Hala ere nahi izanez gero, idatzi itxialar hurrelar. Euzkoako Komunikazio Taldea, Maritxu Ugarte Kultur Parkeak, 20140 Amador.

Herriko baliabideen eta zerbitzuen inguruko gida plazaratu du Udalak: “Ongi etorri gida”

Kanpotik etorritakoei Udalak nolako harre-
ra egiten die? “Galde-
ra horren aurrean
hutsune bat identifikatu ge-
nuen”. Halaxe aitortu digu Jone
Urdanpilletak, Zerbitzuak eta
Gizarte-Ongizatea arloetaz ar-
duratzen den udal zinegotziak.
Erremedioa ipini diote orain,
“Ongi etorri gida” izeneko argi-
talpena argitaratuz.

“Ongi etorri gida” argitaratu berri du Usurbilgo Udalak. Gida hau eskuratzen duenak, zer topatuko du bertan?

Jone Urdanpilleta. Herrira etorri berri direnei zuzenduta dago gida hau, eta herriko izaera baliabide eta ekipamenduen ezagutza eskura izatea da gida honen helburua.

Behin eskuetan, eta gida zabaltean, alkatearen agurra topatuko dute lehenbizi. Herriaren eta gure hizkuntzaren azalpen txiki bat ere jasotzen da. Gainontzean, zerbitzu desberdinen berri ematen da.

Gidan batu den eduki guztia sailkatuta doa: errolda, osasuna, etxebizitza, enplegua, hezkuntza, gizarte zerbitzuak eta... Atal bakoitza bere azalpenarekin ageri da, kokapena eta harremanetarako informazioa barne: ordutegia, helbidea, telefonoa, web-gunea....

Lau hizkuntzatan dator idatzirik “Ongi etorri gida”.

Eduki nagusia euskaraz dago idatzia, baina beste hiru hizkuntzataraz itzuli da. Euskarazko, erdarazko, frantsesezko eta ingelesezko azalpenak ageri dira. Gainera, berehala ulertzeko moduan dago diseinaturik gida.

Esan behar dut gida honen edukia zehazteko, talde desberdinek hartu dutela parte: udal langileak, herriko hainbat era-



“Gertutasuna adierazi nahi diogu herrira etorri denari, edozein dela bere jaioterria”

Udalera erroldatzera datozenei zuzendua dago gida. Baina “beste edozein herritarrek nahi izanez gero, udal errejistroan lortu dezake ale bat”.

gilek eta azken urteotan Usurbilera etorritakoak ere bai. Leerro hauetatik eskerrak luzatu nahi dizkiet parte hartu duten guztiei.

Herrira etortzen denari bidea erraztea izango da argitalpen honen asmoa ezta?

Eguneroko premiei aurre egiteko orduan, gida hau lagungarri izango dela uste dugu. Horretaz gain, gertutasuna adierazi nahi diogu herrira etorri denari, edozein dela bere jaioterria. Guregana iritsi berri, elkarbizitza eraikitzen hasteko unea da eta hor egon behar dugula iruditzen zaigu.

Azken urteetan jatorri ezberdineko jendea hurbildu da, eta horientzat bereziki oso lagungarri izango da gida hau.

Jatorri anitzeko herri bat gara. 43 herrialde desberdineko herritarrek ditugu gurean.

Kanpotik etorritakoei Udalak nolako harrera egiten die? Galdera horren aurrean hutsune bat identifikatu genuen. Eta

hutsune hori estaltzera dator gida hau. Herriaren nortasunaren berri eta gure baliabideen berri ematea beharrezkoa ikusten genuen eta horregatik eman dugu argitara harrera izaera duen gida hau.

Esan bezala, harrera unetik hasita, elkarbizitza dugu helburu, elkar aitortzan oinarritutako elkarbizitza.

Gida honetaz gain, bestelako ekimenik antolatzeke asmorik al duzue?

Elkarbizitza helburu, hori da erronka. Bakoitzak bere nortasuna galdu gabe, elkarren aitortzarako bidean ezinbestekoa da elkar ezagutza eta horretan saiatuko gara.

Horregatik hurrengo pausoa, etorri berriekin aldizkako bilkurak egitea izango da. Zuzenean, beraien beharrak ezagutu eta gure berri emateko.

Aniztasunaren inguruko jai egun bat prestatzen hasiak gara herriko talde desberdinekin eta hasiera batean irailean antolatzeke asmoa dago.

Udalera erroldatzera datorrenarentzat

Zer nolako zabalkuntza izango du? Non aurkitu daiteke? Jone Urdanpilleta. Hasiera batean, espreski Udalera erroldatzera datorrenari zuzenduta dago gida hau.

Hala eta guztiz ere, beste edozein herritarrek nahi izanez gero, udal errejistroan lortu dezake ale bat. Ongi etorri karpeta bat ere prestatu dugu, gida honekin batera beste gida edo dokumentu eramangarri batzuk ere bartzeko.





udajolas 2014

Udajolaseko guraso bilera
ekainaren 12an (osteguna)
izango da **Potxoenean**,
arratsaldeko **17.00etan**



Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala
orain ere [noaua.com](http://www.noaua.com) web orrian



<http://www.noaua.com>

Etxebizitzak, garajeak, motorra,
lanpostuak, trukean...
Zure oharra Internet bidez igo
eta kontsulta dezakezu

www.noaua.com

MERKATU TXIKIA

noaua

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik

12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E.: contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Gure Esku Dago Usurbil: “Ekainaren 8a, festa egun handi bat izatea nahi genuke”

Urduri, azken xehetasunak lotzen, eguna iristeko irrikitan dira Gure Esku Dago Usurbil lan taldekoak. Azken hilabete hauetan hainbatetan iragarri izan duten ekainaren 8a hemen dugu jada. Iritsi da, Durangotik Iruñeara milaka lagun eskutik helduta euskaldunon erabakitze eskubidea aitortzea eskatuko duten igandea, herri baten aldarrikapen irudi historikoa ateratzeko unea. Gogoan izan usurbildarren hitzordua, igandean 10:00etan Uharte-Arakilen. Gero, jaialdia Etxarri-Aranatzen. Gure Esku Dago lan taldekoekin bildu gara presakteta hilabeteok eman dutena baloratu, igandeko aurreikuspenak aztertu eta gerora begira jartzeko.

Nola joan zarete prestatzen igandeko giza-katea herri mailan, abendutik hona?

Gure Esku Dago Usurbil: Lehen bilera abenduaren 21ean, Santo Tomas egunean egin genuen. Urtarrilean deialdi irekia egin eta gerturatu zen jendearekin taldea osatu genuen. Hasieran esaten genuen, jendearen atzetik ibili beharko genuela giza-katera animatzeko. Plan bat ere bagenuen, herritar bakoitzari lagun talde bat lotzea eskatzea. Baina gero, maiaia jarri eta herritarrek bereaie agertu dira izen ematera. Ezustekoa izan da, ez genuen uste jendea hain erraz etorriko zenik. Poz handia eman digu.

662 ATXIKIMENDU

Argi erakusten du honek, herritarren erantzuna zein izan den?

Oso erantzun ona izan da. Interes handia jarri dute, oso gustura gaude herritarren erantzunarekin. Hasieran 400



“Talde anitza gara, eremu, pentsaera edota adin ezberdinetako jendea elkartu gara”

Herrian taldea osatu zenetik, lan handia egin dute. Baina ahalegina ez da igandehonetan amaituko. “Orain artekoa ezin dugu itzaltzen utzi”, adierazi digutenez.

pertsona biltzeko erronka finkatu genuen. Oso zaila ikusten zen. 400 atxikimendu lortu genituen, eta 500eko erronka jarri genuen. Oso zaila ikusten zen baita, baina Sargardo Egunean lortu genuen. 600eko erronka ere gainditu digu. Oso pozik gaude.

Urte hasieran, Sutegi atarian ateratako talde argazki hura bezalako ekimenek sustatuko zuten izen ematea?

Argazki hura oso garrantzitsua izan zen, bai kanpora begira, argazki hori ikustean jendea animatu zelako, baina guri begira ere bai. Argazki hura ateratzea pentsatu genuenean, ez baikenuen espero hainbeste jende izango zenik. 140 bat lagun zenbatu genituen. Bai kanpora eta barrura begira konfiantza eta baikortasun handia eman zigun ekimen hark. Lehenengo hitzordua izan zen, astebetean antolatua, oso azkar eta jendeak oso ondo erantzun zuen. Egia da ahoz ahokora jo genuela.

Plaza beteko ez genuelakoan, txukun atera zen. Erabakitze eskubidearen inguruan zenbat jende mugitzeko gai izango ginen neurtzeko termometroa izan zen ekimen hura, gure taldearentzat. Zertarako gai ginen ikusi genuen eta hortik aurrera indar hartu genuen.

Erabakitze eskubidearen alde dagoen herritar oro bildu nahi izan du ekimen honek. Izen emateetan ere islatuko zen aniztasun hori?

Mahaira inguru guztietako jendea hurbildu da. Baita orain arte gai honetan parte hartu ez, edo ikusten ez zen jendea. Garrantzitsua izan da herri izaera ematea mugimenduhoni. Jendeak gertu bizi izan du. Taldean ere hala gara, talde anitza gara, eremu, pentsaera edota adin ezberdinetako jendea bildu gara. Elkar ezagutzen ez genuen jendea. Hori kanpora begira ere positiboa izan da. Arrakasta hor ere egon da.

“Pertsonengana jo dugu eta horretan asmatu dugu”

Hainbesteko babesa jaso duen ekimeneko arrakastaren beste giltzarriak zeintzuk izan dira?

Pertsonengana jo dugu eta horretan asmatu dugu. Ibilbide bat izan duen ekimena da; Nazioen Mundutik datorren ekimena da hau. Argi dago eboluzio handia izan duela. Idiazabaletik hasi ziren mugitzen, gero “Gazta zati bat” filmarekin gehiago eta Gure Esku Dago mugimenduak ekarri du, eremu handira heltzea.



Maiatzaren 23an entsegu modukoa egin zen herrian.

“Igandeko giza-katea jendea aktibatu eta honetan inplikatzeko abiapuntua izango da”



Tantaka tantaka, atxikimenduak batzen joan dira. Usurbilen, ia 700 lagun biltzera heldu dira.

Zer espero duzue ekainaren 8an?

50.000 izen emate gainditu dira, ezin da irudikatu ere egin. Jende piloak bilduko dela hori bai. Urduritasun eguna izango da guretzat, baina baita oso egun hunkigarria ere. Festa egun handi bat izatea nahi genuke, goizean 9:00etan autobusean sartzetik bueltatu arte.

Herritarrok, mozorrotu edo musika instrumentuak eramatera animatzen dituzue?

Edozer gauza. Balo erraldoiak, malabareak, mozorrotuta joatea, musika instrumentuekin... Jendea animatzeko edo kantatzeko gogoz joan dadila. Gogotsu, eguna oso ondo pasatzeko prest.

Euskaldunon erabakitze eskubidearen errekonozimenduari begira, zer eragin izango du igandeko giza-kateak?

Ikusten duguna da, ekimen arrakastatsua izango dela ziur aski. Orain arte, gure helburua, herria piztea izan da, gai honen inguruko eztabaida herrira jaisteko. Azkenean gu denon ahotan egon behar duelako eztabaida horrek, zerbaitetara heldu behar badugu.

Ekainaren 8a jendea aktibatu eta honetan inplikatzeko abiapuntua izango da. Eta hemen dikurrera jada, martxa hartuko du, bere bidea egingo du. Asmoa, gai honen inguruan lan egingo duen batzar nazional bat sortzea da. Jendearen ahotan egon behar duen gai bat da, gure eskubide bat da zer izan nahi dugun erabakitzea.

Giza-katearen ostean beraz, Gure Esku Dago Usurbil taldeak lanean jarraituko du?

Giza katerako izen emateekin, giza-kate erraldoi bat baina baita ere sare erraldoi bat egin nahi zen. Sare erraldoi horrekin egin nahi dena da, asanblada bat sortu eta modu asanbleario batean, denen artean erabaki nola sortuko den talde hori eta nola funtzionatuko duen, eta hortik aurrera ze pauso eman beharko diren, egunen batean erabakitze eskubide hori gauzatzeko. Igandeko giza-kateari eman behar zaio jarraipena beraz. Orain artekoa ezin dugu itzaltzen utzi, lan handia egin da. Erantzuna oso handia izan da. Ekainaren 8tik aurrera egingo diren bilertara jendeak animatu nahi badu, aukera du. Ateak irekita daude.

Gure Esku Dago

Ekainak 8 igandea

- 9:00 Autobusak Oiardo Kiroldegitik, Uhartte-Arakilera (adi, itzultzeko hautatu duzun orduetako autobusera igo beharko duzue).
- 10:00-11:30 Leku hartzea Uhartte-Arakilera, giza-kateko 90. kilometroan. Giza-kate-rako prestaketa lanak modu animatu eta ordenatuan.
- 11:30 Dena prest!
- 12:00 Hasiera: txalapartak, adarrak, kanpaiek, bozinek edo beste soinuren batek emango dio hasiera giza-kateari.
- 12:00-12:30 Giza-katea.
- 12:30 Giza-katearen bukaera. Soinuak adieraziko du amaiera.
- 13:00ak aldera, Uhartte-Arakiletik Usurbila itzultzeko autobus zerbitzua. Autobusak baita Etxarri-Aranatzen ospatuko den jaialdira.
- 14:00 Ekitaldia Etxarri-Aranatzeko plazan.
- 15:00 Bazkaria: 1.000 lagunentzako bokatak, edaria eta jai giroa. Honez gain:
- Haurrentzako gune berezia.
- Musika eta animazioa egun osoan zehar.
- Kontzertuak: Vendetta, Xaiko eta Tximeleta.
- 18:00-19:00 aldera, Etxarri-Aranatzetik Usurbila itzultzeko autobus zerbitzua.
- Antolatzailea: Gure Esku Dago.

Kotxez doazenentzat aholkua

Gure Esku Dago taldetik luzatu duten aholkua: "kotxez doazen usurbildarrei autoan 90 jartzen duen paper bat jartzea gomendatzen da, ondo ikusgarri. Aparkalekuen inguruko informazioa emango zaigula esan digute. Jasoko bagenu saiatuko gara herritarrei helarazten".

Usurbildarrena, giza-kateko 90. kilometroa

Gure Esku Dago Usurbil lan taldetik, Uhartte-Arakilera gerturatzeko autobusa hartzea aholkatzen dute igandean. 11 autobus osatu dira. Sakanako udalerrri honetan izango dute usurbildarrek, giza-katean parte hartzeko eremua; 90. kilometroa. Gogoan izan zenbaki hau, batez ere, autoz gerturatu asmo duzuenok. "Autobusek aurretik eta atzetik paper bat izango dute (kilometroa, ...). Esan

digute autoz joango den jendeari ere gomendatzeko kotxeari kilometro zenbakia jartzea, bertan trafikoa bideratzeko jendea egongo da. Beraz, kotxez doazen usurbildarrei autoan 90 jartzen duen paper bat jartzea gomendatzen da, ondo ikusgarri. Aparkalekuen inguruko informazioa emango zaigula esan digute. Jasoko bagenu saiatuko gara herritarrei helarazten", ohartarazi dute Usurbilgo lan taldetik.

Autobusa hartu behar duzun herritarrok aldiz, adi, igande goizeko 9:00etarako Oiardo Kiroldegira gerturatu behar duzue. Puntualak izatea eskatzen dute antolatzaileek. Itzultzeko bi bus zerbitzu egongo direnez, (bat 13:00ak aldera, giza-katea amaitu ostean; bestea, 18:00-19:00 aldera Etxarri-Aranatzeko jaialditik) bueltatu asmo duzun ordu horretarako autobusera igo beharko da.

Nafartarrak taldearen hitzaldi ziklo berria

Ekainaren 10etik 12ra, 19:00etan Sutegin. Noingo gudua, Eskozia eta I. Mundu Gerra hizpide nagusi izango ditu, Nafartarrak taldeak datorren aste-rako antolaturiko hitzaldi zikloak:

EKAINAK 10 ASTEARTEA
19:00 "Noain 1.521, independentzia berreskuratzeko saioa" hitzaldia, Sutegiko auditorioan. Hizlaria: Beñi Agirre.

Edukia: Noingo gudua (1521) Nafarroako konkistaren testuinguruan gertatu zen, 1512an Albako dukeak egindako inbasioaren ondoren. Gaztelako Komuneroen erreboltaren ostean, okupatzaileak bere tropak erretiratu egin behar izan zituen, bere lurraldean sortutako gatazka hartaz arduratzeko. Nafarroak matxinadak egin eta inbaditzaileak kanporatzeko aprobetxatu zuen. Hilabetez, Nafarroa independente izan zen ostera. Baina Espainiak indarrak bildu eta Nafarroaren aurka jo zuen berriro ere. Noingoa gerra haren azken borroka handia izan zen.

Ikasturte amaierako festa ospatu zuten Zubietan

Eskola Txikiko Guraso Elkarteak kultur astea antolatu zuen iragan astean. Denetarik ekitaldiak, haur nahiz gurasoentzat, maiatzaren 28tik 30era.

Hiru arratsalde pasa dibertigarri, besteak beste, hitzaldi, puzgarri, askariekin. Eskola Txikiko ikasleen marrazki erakusketa ere antolatu zuten Kaxkapen.



Eneko Bidegainek Lehen Mundu Gerrari buruzko hitzaldia eskainiko du.

EKAINAK 11 ASTEAZKENA
19:00 "Eskozia: atzo, gaur eta bihar" hitzaldia, Sutegiko auditorioan. Hizlaria: Ander Larunbe Anderson.

Edukia: Eskoziako historian ere, Ingalaterrak eragindako gerra, umiliazio eta zapalkuntza ugariren iragana ikusten dugu. Orain, ordea, berriro independentzia lortzeko baldintzarik ba ote dagoen ari da planteatzen Eskozia. Datorren erreferenduma mugarrria izan liteke historia luze horretan.

EKAINAK 12 OSTEGUNA
19:00 "Lehenengo Mundu Ge-

rra Euskal Herrian" hitzaldia, Sutegiko auditorioan. Hizlaria: Eneko Bidegain, Berriako kazetaria.

Edukia: 1914ko Gerra Handiak (duela 100 urte) oso gogor jo zuen Iparraldeko euskal populazioa. Gazte ugari, gerrara bidalita, lubakietan hil zen. Are gehiago, Estatu frantsesak samin hura erabili zuen, ohortzeko eta oroitzeko politika baten bitartez ("Morts pour la patrie") Frantziaren aldeko sentimendu bat sorrarazi eta euskaldunen artean kontzientzia nazional frantsesa eraikitzeko.

Sarrera: doan.

2.868, Tipi-Tapako zenbaki saritua

Munduko herri desberdinetako produktuez hornituriko zizka-mizka bereziekin amaitu zen igandean, Tipi-Tapa egitasmoaren bigarren denboraldi arrakastatsua. 150 euroko erosketa-balearen azken zozketa egin zen Txiribogan, pintxo festa amaieran; 2.868 izan da zenbaki saritua.

Nork bere enpresa sortzeari buruzko doako ikastaroa

Ekintzaileei eta lan merkaturatzeko asmoz, autoenpleguan aukera ona ikusten dutenei zuzendurikoa da, eskualdeko udalek eta Lanbideko sustaturiko doako ikastaro hau. Gertu Asesores, S.L. enpresak bideraturiko saioak ekainaren 19an eta 20an, Lasarte-Oriako Villa-Mirentxun. Bi orduetegi aukeran; goizeko taldeari zuzenduriko saioak, 9:00-13:00 artean. Arratsaldeko taldeari zuzendurikoak, 15:00-19:00 artean. Informazioa eta izen ematea, eskualdeko Lanbideko bulegoetan, telefonoz 943 30 42 21 edo emailaz ekinean@andoain.org

Usurbilgo Udako Eskolaren deialdia

Ekainak 7 larunbata, bilera irekia deitu dute Potxoenean goizeko 10:00etan. "Bertara parte hartu nahi duten guztiak gonbidatuta daude eta gure asmoa uztailean egingo ditugun klaseen egutegia prestatzea izango litzateke (eguna, ordua, tokia ...)". Apuntatzeko azken eguna hori izango denez, bertara azaltzea oso gomendagarria litzateke.



txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Judokoak, dominak pilatzen

Azken aldian jokatu dituzten txapelketetatik, domina mordo irabazita itzuli dira etxera, Usurbil Judo Klubeoak:

Maiatzak 24, larunbata: Alebin mailako taldekako Gipuzkoako Txapelketa, Hernani
Brontzeko dominak: mutilen eta nesken taldeen-tzat.

Maiatzak 18, igandea: Alebilen Gipuzkoako Txapelketa, Hernani

Urrezko dominak: Endika Ramos (-34 kg), Xiker Gurrutxaga (-57 kg), Delia Medices (-30 kg).

Brontzeko dominak: Diego Ramos (-34 kg), Alvaro Hermida (+57 kg), Mara Vaquero (-42 kg), Esti-txu Sanchez (-47 kg).

Zilarrezko dominak: Jonathan Martin (-34 kg), Ibai del Rincon (-38 kg), Julia Fernandez (-42 kg).

Maiatzak 10, larunbata: Infantil eta kadete mailako Espainiako Txapelketa, Leganes

Brontzeko domina, infantil mailan: Mafer Carazas (-48 kg).

Bosgarren postua kadete mailan: Paula Vicente (-48 kg).

Maiatzak 3-4: Senior mailako Espainiako Txapelketa, Leganes

Zilarrezko domina: Aiora Arrillaga.



Mafer Carazasek brontzeko domina eskuratu zuen Leganesen.

Brontzeko domina: Nerea Arruti.

Bosgarren postua: Andoni Aizpurua.

Apirilak 6, igandea: Kadeteen Euskadiko Txapelketa, Gasteiz

Lehen postua: Paula Vicente (-48 kg), Mikel Sanz (-90 kg).

Bigarren postua: Alba Vicente (-48 kg), Julen Alzas (-50 kg), Mikel Formoso (-90 kg), Joxe Arruabarrena (+90 kg).

Hirugarren postua: Ainhoa Gonzalez (-48 kg), Itsasne Arruabarrena (-52 kg), Jon Rubio (-60 kg).

Bosgarren postua: Josu Ruiz (-73 kg).

Lanbro artean ere, gustura Andatzakoak



Lanbro artean osatu zuten Arlabandik Araotzerako ibilbidea. Argazki gehiago: www.andatza.com

Ekainaren 7an, Zumba festa Kiroldegian

Kirola eta dantza batzen dituen jarduerara da Zumba. Festa modukoa egingo da Oiarde kiroldegian, ekainaren 7an larunbata, arratsaldeko 17:30etik 19:30era.

Areto futboleko lehen fasea amaitzean

Udaberriko ostiral gauetan ikusmina nagusi berriz ere, Usurbilgo Gaztetxeak antolatuta duen futbito txapelketari esker. 4. jardunaldi eguna ospatu zen aurreko ostiralean. Gogoan izan, txapelketako lehen fase honetan bost jardunaldi ospatuko dira. Ondoren, lehen lau taldeak hurrengo faserako sailkatuko dira. Beste ligaxka bat jokatuko dute eta lehen bi sailkatuek, beranduenez, Santixabelen atarian ospatuko den final handia.



Asteburu honetan amaituko da lehen fasea.

LH-koentzako kirol ekimena, Usurbil FTk antolatuta

Aurten irailean ospatuko den Usurbil Cup txapelketa ordezkatuko du, datorren ekainaren 13rako Usurbil FT-k antolatu duen hitzorduak. Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendua egongo den arratsalde pasa, 18:00etan abiatuko da izen ematearekin. Izena eman behar dute eta, futbol taldeen bilguneak antolaturiko ekintzetan parte hartu nahi duten 6-12 urte arteko ikasleek. Besteak beste, 3X3 futbol partidak antolatu dituzte Mikel Laboa plazan. Zehaztasun gehiago, datorren aste-karian.

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TELF: 943 36 20 26
687 95 12 25

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net
Oztaran auzoa 33, URNIETA

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patri Jatetxea
K/hagusia 14. © 943 362 725

kuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goiztean arratsaldean. Irakaskuntzan diplomata. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketean. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketean eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria presatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrik ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urte-tako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrik emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila gutxi-tan, 19 urtetako esperientzia,

646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrik emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrik emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskalduna, haurrak zaindu edota klase partikularrik emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzetan laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari lagun-

tzaila moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketara lanetarako. 618 030 296.

Lan eskaintzak

Emakume autonomo bat behar da Usurbilgo elkarte bat garbitzeko. 943 36 27 24 (Hitzorduak astelehenean 18:00-20:00)

BESTELAKOAK

Poltsa bat utzi dut Errekatziki pasealekuan. Norbaitek aurkitzen badu, Noaualko bulegora eraman.

Pultsera bat galdu nuen ikastola eta kiroldegi artean, zilar kolorekoa eta bi hartzatxorekin. Aurkitu duenari bueltatzeko eskertuko nioke 607 168 352 zenbakira deituz.

Txapeldun jertse berdea galdu genuen ostiralean. Frontoi eta dema plaza artean. Arratsaldeko 7etatik 9ak bitartean. On The Go du aurreko aldean jarrita. Noauala ekartzea eskertuko genuke.

Urte eta erdiko ume batentzako, sendo samarra den kotxe silla bat behar dugu. 626 728 463

Kotxe silla bat erosiho litzake urte eta erdiko haur batentzat. Sendo, fuertea izan dadila. 626 728 463.

Mutil gazte bat prest dago, rotabatorearekin lurra biratzeko eta esku buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40 (Aitor).

Oxelo markako patinete bat galdu dut. Beltza eta arrosa. Askatasuna plazan. Aurkitzen duenak Patrira eraman, edo deitu 943 507 230.

Zaldi-terapia egiteko, egokitutako lokal bat, landa eremu bat edo lursail bat alokatu nahiko genuke proiektu bat aurrera ateratzeko. Igor Aizpurua. Tel. 606 525 707.

Niki txuri mangaluzer bat galdu dugu Erreka Txiki inguruan. Katu baten marrakia eta perlatxoak ditu. Aurkitu baduzu, deitu 943 37 04 03 telefono zenbakira.

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. Tel. 696 264 197.

Josteko makinak salgai. Prezio onean. Tel. 943 36 32 01.

Belar fardoak salgai. 943 36 20 72.

6 hilabeteko Bulldog frantsesa galdu da, txuria orban beltzekin, Txokoalde inguruan. Norbaitek ikusiko balu deitu 637 93 20 58 (Silvia)

Iphone 5 telefono mugikorra galdu nuen Eguberrietan. Topatu baduzu, deitu 943 36 11 15 telefonora.

Valentziako mandarina ekologikokoak salgai. 1€ kilo. Bitartekariarik gabe. Tel. 637 929 093.

Katu beltza eta txuria galdu da herrian, "Txalaka" frutadenda inguruan. Pottolo xamarra dago. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 605 752 667. Saria emango da.

Baserri edo borda bat nahi genuke alokatu edo alokairuaren bidez erosi. Oiloak, pottokak eta baratza ditugu, beraz hektarea bat gutxienez behar dugu. Miren: 656742048; Alaitz: 658724075

Baserri bat eskaintzen da konpondu eta negozio bat jartzeko Lasarte inguruan. Tel. 626 728 463.

Josteko bi makina salgai. 943363201.

Indukziozko sua salgai. Bi urte ditut eta baldintza onetan dago. 943 361 109.

Zubietan 10.000 m. baino gehiagoko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

Izotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35 - 38 tala, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretsua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera egingo da. 637974994

Hemengo intxaurra erosiho nuke, deitu 634 409 888

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunetan. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Aberre-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udalzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztxea	943 362 163
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonika	1004
NOAUA! Kultur Elkarte	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak ekainak 5 - ekainak 15

Osteguna	5	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Ostirala	6	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Larunbata	7	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte
Igandea	8	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte
Astelehena	9	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Astearte	10	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
Asteazkena	11	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte

Osteguna	12	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte
Ostirala	13	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Larunbata	14	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte
Igandea	15	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ Garikoitz Aldabe. Perkaiztegikalea 8 Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

Agenda ekaina

6 ostirala

■ **Aitzaga Elkarteak 20 urte: gauldia.** 20:30ean ekitaldia eta dantza kolektiboa. Ondoren, aforia. Sarrerak salgai Aitzagan, 20 eurotan (12 eurotan, langabe eta ikasleentzat). Afaloste-an, bideo emanaldia.

7 larunbata

■ **Zumba festa Kiroldegian.** 17:30etik 19:30era-Oiardo kiroldegian.

8 igandea

■ **Gure Esku Dago** Informazio gehiago, 12-13 orrialdeetan.

Ikasturte amaierako emanaldiak



Oporraldi aurreko kontzertu zikloa ekainaren 11tik 18ra izango da.

Zumarte Musika Eskolakoek amaitzear dute ikasturtea. Oporretara joan aurretik ordea, hilabete hauetan ikasgeletan landutakoa jendaurreko azken emanaldietan plazaratuko dute:

Ekainak 11, asteazkena

■ 18:30 Zumarteko ganbaran: Piano, saxo eta bioliniko ikasle gaztetxoak.

Ekainak 12, osteguna

■ 18:00 Udaregi Ikastolan: Zumarte Txiki Abesbatza eta Musika Txokoko ikasleak.

Ekainak 16, astelehena

■ 19:00 Sutegin: The Hastelehen's, Ganbarakada, Gitarra Taldea, Tronpeta-Mix Taldea.

Ekainak 17, asteartea

■ 19:00 San Estebango elizan: Zumarte Abesbatza, Zumarte Gazte Abesbatza, Biolin Max-Mix Taldea.

Ekainak 18, asteazkena

■ 18:30 Sutegiko auditorioan: Triki-pandero Taldea, Talde Instrumentalak, Piano bikoteak, Klarinete Taldea, Eskusoinu Taldea.

Martxan da XXXVIII. Santixabel bertsoaper lehiaketa

Hauek dira lehiaketan parte hartzeko baldintzak: Usurbildarra izatea, 6-10 bertso artean idaztea, gaia librea, aurkeztutako lana inoiz argitaratu gabea izatea.

Sariak hauek izango dira: Lehena 200 euro eta txapela. Bigarrena 150 euro. Hirugarrena 100 euro.

Lanak uztaillaren 1a baino lehenago Usurbilgo Udaleko sarrera-erregistrora ekarri behar dira: Usurbilgo Udala / Joxe Martin Sagardia plaza z.g./ 20170 Usurbil.

Lehiaketa nork irabazi duen uztaillaren 5eko bertso saioan emango da aditzera.

Datozenak

Sorosle eta lehen sorospen ikastaroa, ekainaren 9tik aurrera

DYAK antolatuta, ekainaren 27ra arte, 18:00-20:00 artean, Munalurra 26ko egoitza berrian. Ikastaroa egin eta amaierako frogagainditzen duenak, sorosle titulua eskuratzeko aukera izango du. Matrikulazioaren kostua, 110 euro, ikastarorako materiala barne dela. Ikasle kopurua mugatua. Izen ematea eta informazio gehiago: 943 46 46 22. "Ikastaroak, kontuan izanik ez dela beharrezkoa aurrez ezagupenik izatea, egunerokotasunean aurki ditzakegun arrisku egoerei nola erantzun irakatsiko du. Bihotz eta birika susperketa, zauriak, hausdurak, erre-durak... Ezagupen oso arruntak baina laguntza asko eman dezaketen hauek, oso modu eroso eta atseginen erakusten dira eta teoria eta praktika alderdiak ikutuaz", berri eman dute antolatzaileek.

Kalezarko San Joanak, ekainaren 20tik aurrera

Aldaketak datozen Kalezarko festa egune-tan. Aurreko urteetan bi asteburutan ospatu izan dituzte San Joanak. Aurten, bost egunez jarraian gozatu ahalko da, inguruotako denboraldiko lehen festez. Bost egunez jarraian antolatuta dituzte jaiak; ekainaren 20tik (ostirala) 24ra (asteartea). San Joan Egunez amaituko dira Kalezarko ospakizunak.

ETXETRESNEN 
KONPONKETAK
 Moduz, azkar eta prezio onean
 MARKA GUZTIAK



645417665
 XABIER
 Usurbil

TXAPELDUN
TABERNA
 razioak
 ogitartekoak
 plater konbinatuak...

Muna lurra 2, 943 11 82 53

URDAINTZI
 eraikuntzak



649 43 54 75 / 76
 943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK



ARRANDEGIA
PELLO



PUNTAPAX 7
 943 36 21 64
 USURBIL



**zerbitzua euskaraz
eman nahi dizugu**

lagundu hobetzen



Eskaini 5 minutu galdetegia
erantzuteari eta parte hartu
produktu kulturalak erosteko
50na euroko 3 bonoren zozketan



**bete hemen
galdetegia**

eskerrik asko!



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoa
BERRIA

æk

euskararen gustu guztiak UDAKO ESKAINTZA 2014



EUSKALTEGIAK

IKASTARO TRINKOAK
ON LINE IKASTAROAK



2 ASTEKO BARNETEGIAK

EUSKARA ESKOLAK
EUSKARAZ BIZITZEKO
AUKERA



FAMILIA BARNETEGIAK

EUSKARA IKASTEKO
SEME-ALABEKIN
EUSKARAZ ARITZEKO



BARNETEGI IBILTARIAK

OINEZ ZEIN BIZIKLETAZ
MINTZAPRAKTIKA
EGITEKO



- 100 orduko ikastaroa eskainiko da: uztailan 60 ordu eta irailan 40 ordu
- 1., 2. eta 3. hizkuntza eskakizunak edo EGA prestatzeko klaseak

usurbil

ETUMETA AEK

Kale Nagusia,
45 behea
20170 USURBIL



æk

Garena ikasteko
para entendemos
pour se comprendre

607 609 379
usurbil@æk.org
www.munteri.blogspot.com.es
www.æk.org

